

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Edozein produktu edo zerbitzu aurrera eraman ahal izateko, enpresa honekin lan egiten duten funtsezko elkarteak oso garrantzitsuak dira, beraz, atal honetan hau landuko dugu.

Gure produktua aurrera eraman ahal izateko, **ekoizpena da pausurik garrantzitsuenetako bat**. Ekoizpen ona izan ezean, gure produktuaren kalitatea txarra izango zelako eta inork ez lukeelako nahi gure produktua erostea. Beraz, hau kontuan hartuta, bi konklusioetara ailegatu gara:

Alde batetik produktuaren ekoizpena konplexutasun asko dakarrela. Produktu original bat denez, ez dago inolako jarraibiderik honen produkzioa horretan oinarritzeko. Honengatik, produktu finala hoberen ateratzeko, ekoizpena zenbait arlotan banatuko dugu, produktuaren atalaren arabera. Alde batetik **alde teknologikoa**; hau da, **software-a, txip-a eta pantaila**; eta beste alde batetik, **produktuaren kanpoaldeko zatia**; hau da, **bozgorailuak eta karkasa (plastikoz eginda)**.

Bestalde, material honengatik eginda egoteko eta iraunkorra izateko, hornitzaile eta material aukera guztiak ondo aztertu ditugu.

Gure produkzioa errentagarriagoa izateko, ***outsourcing*** metodoa erabiliko dugu. Honekin, ekoizpenaren hainbat zati beste enpresa batzuen esku utziko dugu **ekoizpen gastuak murriztu ahal izateko**.

Azpikontratutako enpresak:

Edozein produktu elektronikoren edo digitalen oinarriak hauek funtzionatzeko txipak eta softwareak dira. Hauek izan ezean, produktua ez lukeelako izango beharrezkoa den programazioa egingo dituen funtzioak aurrera eramateko. Gainera, irudiak/tutorialak ikusi ahal izateko, pantaila on bat behar izango dugu. Hurrengo hauek dira **azpi-kontratutako ditugun enpresak produktuaren diseinua eta fabrikazioa aurrera eraman ahal izateko** (gure injineruaren laguntzarekin eta aholkuekin batera):

-Txip eta zirkuitu elektrikoa: Ceista International enpresak ekoiztuko du. 2006tik dago espezializatuta azpikontratazio elektronikoaren sektorean. Txinan ezarrita dagoenez, CEISTAk kostu txikiko azpikontratazioa eskaintzen du zirkuitu inprimatuen plaketan. Hornitzaileen eta osagaien aukeraketan parte hartzen dugu, gure bezeroen beharrak hobeto asetzeko.

-Software: honen ekoizpena Pyramide Ingenuerie enpresaren esku utziko dugu. Entitate honek parte hartu du hainbat proiektu elektroniko handietan, bere injineruen eta teknikoen eskuz. Gainera, sektorearen ikerketa ekonomiko eta estrukturala egiten dute diseinu hoberenak egiteko.

-Pantaila: All Spare enpresaren esku utziko dugu Smartphone, tableta, eramangarri eta bestelako gailu mugikorretarako pantailen eta bestelako ordezkoren % 99 Txinan, Japonian eta Taiwanen ekoizten duelako. Produktuaren pantailaren diseinua baita ekoizpena aurrera eramango du prezio paregabe batean.

-Karkasa: FT-TEC GMBH ekoiztuko du produktuaren kanpoaldea. Haiek arlo ezberdinetan dituzten kontaktu onei esker, material desberdinetako produktuak eskain ditzakegu. Plastikozko plakak eta txapak, injekzio edo estrusio bidez moldaturiko piezak, baina baita altzairuzko produktuak ere, altzairu urtuzko xaflak eta plakak kasu.



Hornitzaileak:

-Bozgorailuak: bozgorailuak **Alibaba.com** web-orritik eskatuko ditugu, konkretuki **Migrange markako 2 hazbetetakoak**. Hauek dira Alexa eta antzeko produktuak eramaten dituztenak. Hauen prezioa oso ona da, eta gainera kalitate honeko soinua erreproduzitzen dute (**6W y 4 ohm**).



Hornitzaile eta azpikontratatuak enpresa bakoitzak egindako produktuaren zatiak, era desberdinetan gure eskuetara ailegatuko lizake (enpresa bakoitzarekin zehaztutakoa), baina batez ere azpikontratatuak itsasontziz eta bozgorailuak postaz.

Honetaz aparte, *Bezeroekiko harremana* atalean zehazki ikusiko dugun moduan, Emserso entitatearekin harremana izango dugu subentzia lortzeko (diru iturriak) baita gure produktua saltzeko. Ezarritako unitate jakin bat handizka salduko diogu Emsersori haiek haien bezeroei saldu ahal izateko. Praktika honen helburua, agure gehiagoetara ailegatzea da. **Emsersok fisikoki saldu ahal izango du produktua** baita haiek web orritik, zuzenki **gure web orrira** eramango duena. Badakigu adineko asko ez direla interneten bidez ondo moldatzen (hau baita gure produktuaren arrazoia), baina saltzeko metodo hau haien zaintzaile/familia kideentzat zuzenduta dago, haien ordez erosi ahal izateko opari moduan.

Imersorekin izango dugun akordioa oso handia izango da, subentzia baita bezero potentzialak emango dizkigutelako. Hala ere, hurrengo puntuan ikusiko dugun moduan, Imersore entitatearen bidez ezin badugu gure produktua aurrera eramán, **beste aukera batzuk** ditugu (**Bizkaiko Foru Aldundia, Neotec**).

